

Espainiako hauteskunde orokorrak

Abertzaleen arteko dema Madrildo plazan

Azaroaren 20an Espainiako Parlamenturako hauteskundeak egingo dira. Asko dago jokoan, balizko gobernu aldaketa Madrilen, abertzaletasunaren nagusitasuna Euskal Herrian... Hori guztia inoiz ezagutu gabeko testuinguruan gainera: ETAren jarduera armatua desagerturik eta krisi guztien aitak ekonomia irentsi nahi duenean hain zuzen.

URKO APAOLAZA



LUIS JAUREGALIZO / ARGAZKI PRESS

Iñigo Urkullu eta Josu Erkoreka, EAJren hauteskunde kanpainako ekitaldi batean.

“HERRITARREI ESKATZEN DIET bozkatu dezatela hilaren 20an (...) abstentzioarekin ez da demokrazia hobetzen. Zuen botoa garrantzitsua da, bai zuen eta zuen familia- ren etorkizunerako, baita zuen balore eta printzipioentzako ere”. Hitz borobil horiek erabili zituen Alfredo Pérez Rubalcaba hautagai sozialistak joan den astean Mariano

Rajoy popularrarekin izan zuen aurrez aurreko eztabaidan. Harri- garria da: presidentegaiak botoaren balioa azpimarratzen zuen bitar- tean, Grezian Papandreuk azke- nean erreferendumik ez zuela egin- go zioen, Europako presioei men eginez.

Hori izango da Espainiako hau- teskundeetan politikariek izango

duten arazo nagusietako bat: nola konbentzitu sistema demokratiko batean bizi garela? Greziako auziak ipurdibistan utzi ditu estatuak; botoen subiranotasuna bankuetako bulegoetan amaitzen da eta zaila izango da herritarrei besterik sines- taratzen.

Testuinguru horretan heldu diote batzuek eta besteek kanpaina egi-



JAGOBA MANTEROLA/ARGAZKI PRESS



RAUL BOGAJO/ARGAZKI PRESS

Ezkerrean, Amaiurren hauteskunde kanpainako ekitaldia; eskuinean, Zapateroren bisita Ajuria-Eneara.

teari, baita Hego Euskal Herrian ere. Jokoan Espainiako Kongresuko 23 eserleku daude (Bizkaitik 8, Gipuzkoatik 6, Nafarroatik 5 eta Arabatik 4) eta Senatuko beste 16 (herrialde bakoitzeko launa). Senatuaren kasuan gainera, Erkidegoetako legebiltzarrek senatari bat gehiago aukeratzen dute eta beste bat erkidegoak duen milioi biztanleko.

Abertzaleen arteko lehia

Krisi ekonomiko itzelaz gain, Euskal Herrian oso presente izaten ari da ETAk armak uzteko hartutako erabakia –Espainiako kasuan gai hori albo batean uztea adostu dute bi alderdi nagusiek, bistan denez—. Ezker abertzalearen estrategia aldatetak eta indar subiranozaleen metaketak lehia gogorra ekarri du abertzaleen eremuan eta nabarmen agertzen ari da hori kanpainan zehar.

Udal eta foru hauteskundeetan Bilduk lortutako emaitzek erakutsi dute historian lehen aldiz EAJren hegemonia kolokan gera litekeela. Lehen aldiz? Bada, ez. “Euskal kausaren zuzia eskuz aldatu zen 60ko hamarkadan: nazionalismoaren historian ia eksklusiboki EAJk izan zuen protagonismoa ETAREN eskuetara igaro zen”. Emilio Lopez Adan *Beltza*-k duela hiru hamarkada idatzitako *El nacionalismo vasco en el exilio* liburu gogoangarriko pasarteak da honakoa. Liburu horretan azaltzen denez, EAJ erbestean eta agortuta zegoen bitartean, ETAk

arnasaldia ekarri zuen eta abertzaleen abangordian jarri zen. Ajuriagerra bezalako jeltzaleek gogor hartu zituzten abertzale berriak: “Alderditik atera dira eta Alderdira belainiko itzuliko dira”, esan omen zuten. Paradoxa da: ETA sortu zenean EAJk abertzaletasunean nagusigoa galtzeko arriskua ikusi zuen; mende erdi geroago, ETA amaitu denean, gauza bera pasa zaio.

Paradoxa da: ETA sortu zenean EAJk abertzaletasunean nagusigoa galtzeko arriskua ikusi zuen; mende erdi geroago, ETA amaitu denean, gauza bera pasa zaio

Baina Joseba Egibarrek duela gutxi azaldu moduan EAJ alderdi “fondista” da. Bere historiak hala erakusten du, testuinguru berrietara egokitu eta moldatzen jakin izan baitu. ETAREN sorreraren ondoren, 1986ko EAren eszisia izan liteke jeltzaleen garai latzenetakoa, baina urtez urteko hautes-emaitzak ikusi besterik ez dago ataka hori nola gainditu zuen jabetzeka, Ibarretxeren urrezko urteetara iritsi arte.

Kanpaina honetan EAJ behin eta berriz ari da azpimarratzen alderdi

abertzalearen iragan hori, “espe-rientzia” eta “egonkortasuna” gisako hitzak nabarmenduz; Madrilgo Kongresuan egindako lanaz Joseba Agirretxea hautagaiak *Euskadi Irratia*-n zioen “35 urteko bermea eta edozein enpresak onartzeko moduko curriculum” dutela. Hauteskunde programan letra larriz jarri du EAJk pasa den legealdian 1.265 milioi euro lortu zituela Madrilatik transferentzia, laguntza eta inbertsioen bidez. Curriculumarena baina, aho biko aiztoa da, hautesleek ondo gogoan izan baitezakete Zapateroren gobernuak egindako erreforma eta murrizketei emandako babesak.

Dena dela ere, hautes-zoru sendoa du EAJk: 1996an 318.000 boto; 2000an 353.000; 2004an 420.000; eta 2008an 306.000 boto (NaBai kontuan eduki gabe). Ez dirudi epe motzera Amaiur koalizioak askorik kenduko dionik, batez ere ikusita azken deialdian Bilduren arrakastak ez ziola kalterik egin boto kopuru aldetik (327.000 boto lortu zituen EAJk EAEn). Baina epe ertainera? Hor kontuak bestela dira, Amaiur osatzen duten alderdiek, erabakitze-ko eskubidearen inguruan sakontzen joan ahala, higatu dezakete EAJ.

Urkulluren alderdia kontziente da arlo horretan ezin duela geldirik egon, eta ingurumari horretan egin dute 2015ean estatus politiko berri bat lortzeko proposamena. Baina zertan zehazten da hori? Oraindik

D'Hondt Legea eta nafar abertzaleen eserlekua(k)

D'Hondt Legearen arabera, zirkunskripzio batean gutxienez botoa eman dutenen %3a behar da eserlekua lortu ahal izateko. Eserlekua lortzeko formula aritmetiko bat erabiltzen da taula baten bidez. Ezker-eskuin alderdiak jartzen dira, boto gehien lortu dutenetik gutxien lortu dutenera arte eta, goitik behera 1,2,3... zatiketa egiten da, zirkunskripzioari dagokion eserlekuekin. Esaterako, 2008ko hauteskundeetan, Nafarroan PSNk

bosgarren eserlekua 57.918 botorekin lortu zuen. Ikusi segidako koadroan (eserlekuak parentesi artean):

	UPN-PP	PSN	NaBai	NEB-IU
1	131.618 (1)	115.837 (2)	62.073 (4)	11.035
2	65.809 (3)	57.918 (5)	31.036	
3	43.872	38.612	20.691	
4	32.904	28.959	15.518	
5	26.321	23.167		

Bistan da eserlekua lortzea ez dela alderdi baten emaitzaren arabekoa, alderdi bozkatuenen emaitzak berebizikoak dira. Nafarroako kasuan, abertzaleek arriskuan dute eserlekua, Geroa Bai eta Amaiur norbere aldetik aurkeztu direlako. UPN-PPk botoetan gora egiten badu eta PSNk ez badu sekulako beharada izaten, Amaiurrek eta Geroa Baik seguruenik 50.000 boto lortu beharko lituzke, eserlekua ziurtatzeko.

gehiegi argitu ez den arren, badirudi EAJren proposamena eredu politiko "kontzertatu" baten ildotik etor litekeela eta bide batez Europan nazio gisa errekonozitua izatetik (ikus LARRUN 158 zk.).

Amaiur, azkenean libre

Gutziz ez ohikoa izaten ari da hauteskunde kanpaina hau. Ez soilik ETAREN jarduera armaturik ez dagoelako, baita ezker abertzaleak behingoagatik kanpaina libreki egin dezakeelako ere. Azkeneko hamar urteetan Estatuko fiskaltzak dozena erditik sigla inpuñatu ditu eta poliziaren jazarpena izan dute kanpaina egiteko garaian. Bilduk berak ezin izan zuen jakin azkeneko momentura arte maiatzeko hauteskundeetan parte hartuko ote zuen ala ez. Amaiurren kasuan, indar subiranistak mitinak ematen ari dira normaltasunez, kartelak itsatsi, botoa gutun bidez eskatu, tartea dute irratia eta telebistetan... Ezker abertzaleari askotan egotzi izan zaio justiziak bere gainean jarritako *Damoclesen espata* biktimismoarako baliatzea botoak lortzeko. Zentzu horretan, hauteskundeok kotoiaren froga izango dira.

Inkesta guztien arabera Amaiur talde parlamentarioa lortzeko bidean da. Bilduk udal eta foru hauteskundeetan 313.000 boto lortu zituen eta Aralarrek 37.000. Horri gehitu behar zaizkio NaBai ikurpean Aralarrek Nafarroan lortu zituenak. Osotara 350.000 botoz ari gara. Amaiurrek lortzen badu Hego Euskal Herriko alderdi bozkatuena izatea, jada birtualki Espainiako

Gobernuan dagoen Alderdi Popularrak zailago luke orain arteko itxikeria erakustea eta bake prozesua zangotrabatzea.

Emaitzak emaitza, koalizio subiranistaren erronkak bere baitan ere badaude. Alderdi askotako batura izanik, kohesioaren eta aniztasunaren arteko oreka mantentzen lanak izango ditu. Bildu osatzen duten indarrek bide luzea dute eginga elkarrekin eta akordio estrategikoak sinatu dituzte. Aralarrek aldiz, hauteskunde hauetarako koalizioa baino ez du egin, barne eztabaida sutsu baten ondoren gainera. Ildo horretan, ikusteko dago batzuen eta besteen jarrerak nolako eragina izango duen

EAJren curriculum aho biko aiztoa da, hautesleek ondo gogoan izan baitezakete Zapateroren gobernuak egindako erreforma eta murrizketei emandako babesa

Amaiurren etorkizunean. Ezker abertzaleak Iruñean egindako ekitaldi batean Rufi Etxeberraren ahotik esan zuen "iraultza demokratiko nazionalaren motorra" izango dela. Tren eta motor hori daramaten errodamenduak ondo artikulatuta egotea da gakoa eta norabidea nahiz erritmoa guztien artean adostea.

Patxi Lopez, non zinen?

Abertzaleetasunaren eremutik kanpo, alderdi sozialistak izan ditzakeen emaitzetan jakin mina dago. Patxi Lopezek sinesgarritasun falta handia du, aukera guztiak ordezkaturik ez dauden parlamentu batetik ateratako Eusko Jaurlaritzako lehendakaria baita eta gobernu hori PPk babestuta eskuratu zuen gainera, Espainian beti mokoka ari den alderdiarekin hain zuzen. Eta errematatzeko, krisia dela-eta bere alderdia erreforma antisozial ugariren erantzule da Madrilan. Nola eman buelta horri guztiari?

Deigarria da Espainian PPrekin isiltasun itun moduko bat egin duten bitartean, nola Euskal Herriaren ETAREN amaieraren inguruan dantzan ari diren sozialistak. "Helburu nagusienak bete ditugu: bakea eta askatasuna ekartzea", esan zuen Lopezek kanpainako mitin batean. Baina lehendakariak arazo bat dauka: ETAK armak utzi zituenean AEBetako tren batean zegoela. Akats horren ondoren gidaritza hartzen saiatu da eta bilera egin ditu alderdi eta sektore ezberdinetako ordezkariekin, Rodríguez Zapatero Espainiako presidentea izan da Ajuria-Enea bisitatu duen azkenekoa. Nola eragingo ote du horrek guztiak datozen hauteskundeetan? PSEK 2008an 425.000 boto ateratu zituen EAEn, zenbat ote 2011n? Tapia eta Leturiak zioten moduan: ez lirateke gutxi balitu erdiak. ■

